



II informe de medidas de promoción del Tercer Sector Social de Euskadi (2021)

La acción de promoción del Tercer Sector Social impulsada por el sector empresarial en Euskadi

Anexo 4: Enpresa-sektoreak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari emandako laguntza eta harekin izandako elkarlanari buruzko galdetegia

Galdetegiaren helburua

Euskadiko Hirugarren Sektor Sozialeko (EHSS) erakundeei laguntzeko eta haiekin batera lan egiteko 2021ean enpresak bultzatzen ari diren ekintza mota oro identifikatzea eta jasotzea da galdetegi honen helburua. EHSS osatzen duten ekimen sozialako erakundeek eta sareek (elkarteak, fundazioak, etab.) honakoak sustatzen dituzte: inklusio soziala, garapenerako lankidetzeta eta zaurgarritasun, bazterketa, desgaitasun, mendekotasun... egoeretan dauden pertsonen edo kolektiboen eskubideak. Jasotako datuak **txosten** batean bilduko ditugu. **EHSSko erakundeak eta sareak indartzeko prozesuan enpresa-sektoreak duen paper espezifikokoaren** berri emateko balioko du txosten horrek. Era berean, **euskal enpresek gure gizartearen jasangarritasunari egiten dioten ekarpena ezagutzera emateko eta bistaratzeko** ere balioko du.

Zer enpresa motak bete behar dute?

Galdetegi hau BETE BEHAR DUZU, baldintza hauek betetzen badituzu:

- Edozein tamainatako, figura juridikotako eta jarduera-sektoretako **enpresa edo enpresa talde** bat bazara, egoitza soziala EAEn duena edo, egoitza soziala EAetik kanpo izanik, Euskadin establezimendu bat edo gehiago dituzuna.
- Edo **enpresa-fundazio** bat bazara, hau da enpresa batez edo enpresa talde batez osatutako fundazioa, egoitza soziala edo establezimenduak Euskadin dituena.
- Edo euskal **enpresa-elkarte** bat bazara, hau da, euskal enpresak edo Euskadin establezimenduak dituzten enpresak ordezkatzeko eta haien interesak defendatzeko dituen elkarte, federazioa, konfederazioa...
- Aurreko irizpideetako bat betetzen baduzu, eta **EHSSko erakunde edo sareei laguntzen badiezu edo haiekin batera lan egiten baduzu** haien zerbitzuak, programak edo proiektuak martxan jartzeko edo garatzeko orduan.

Eta EZ DUZU BETE BEHAR, enpresa bat edo kooperatiba bat izanik, baldintza hauek betetzen badituzu:

- **EHSSren parte bazara**, hau da, irabazi-asmorik ez baduzu, zure partaideak gehienbat Hirugarren Sektor Sozialeko erakundeak badira eta erakunde horien helburu sozialak lortzeko eratu bazintuzten. Hemen sartzen dira **enplegurako zentro bereziak** eta baldintza hauek betetzen dituzten **gizarteratzeko eta lan-munduratzeko enpresak**.

Enpresako, elkarteko edo enpresa-fundazioko zer pertsonak bete behar luke galdetegia?

Galdetegia enpresaren ikuspegi osoa duen pertsona batek erantzutea gomendatzen dugu.

EAEn egoitza edo delegazio bat baino gehiago badituzue, galdetegi bakarra bete behar duzue EAEn edo bertako lurralderen batean EHSSri laguntzeko eta harekin batera lan egiteko martxan jarritako ekintzen inguruan.

Zenbat denbora behar da galdetegia osatzeko?

15-20 minututan bete daitekeela kalkulatu dugu, baina eman diezagukezun informazio kopuruaren araberakoa izango da.

Nola tratatuko ditugu zure datuak?

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera tratatuko dugu jasotako informazioa. Eta Europako araudia ere beteko dugu, zehazki, 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez. Datuak Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren jabetzakoak izango dira, eta EDE Fundazioak tratatuko ditu zehaztutako helburuetarako, Hirugarren Sektor Sozialaren Euskal Behatokiaren dinamizatzailea delako. Modu konfidentzian tratatuko dira, eta erantzunen anonimotasuna bermatuko da; izan ere, emaitzak osotasunean aztertuko dira. Harremanetarako datu orokorrak Behatokiaren erakundearen direktorioan sartzeko erabiliko dira. Antzeko beste azterlan batzuetan ere erabili ahal izango dira datuak. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko, haien aurka egiteko, mugatzeko edo eramateko eskubideak erabili ahal izateko, mezu elektronikoa bidali beharko da helbide honetara: lopd@edefundazioa.org

Baimena ematen dut erakundearen harremanetarako datuak Hirugarren Sektor Sozialaren Euskal Behatokiari sustapen-eragilearen direktorioan sartzeko:

Nora argitu ditzakezu zure zalantzak galdetegia bete aurretik edo bete bitartean?

Zalantzaren bat izanez gero edo azalpenen bat behar izanez gero, Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokira idatz dezakezue: documentacion@3seuskadi.eus. Bestela, telefono-zenbaki honetara dei dezakezue: **94.400.33.55**

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK!

Identifikazio-datuak

1. BLOKEA: ERAGILEA

1.1. Erakundearen izena

*1 (VIde1): _____

1.2. Mota* (VIde2)*:

- Enpresa Enpresa-fundazioa
 Enpresa-elkartea

1.3. Tamaina (VIde3): *Azalpena.*

- Mikroenpresa Enpresa txikia
 Enpresa ertaina Enpresa handia

1.4. Egoitza soziala *Helbide soziala, "kudeaketa administratiboa eta negozioen helbidea bertan zentralizatuta dago" (Tributuena Lege Orokorraren 48. artikulua).* (VIde4)

- Araba
 Bizkaia
 Gipuzkoa
 Estatuko gainerako lurraldeak

1.5. Jarduera-sektore nagusia* (VIde5):

- | | |
|--|---|
| <input type="checkbox"/> A. Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza | <input type="checkbox"/> B. Erauzteko industriak |
| <input type="checkbox"/> C. Manufaktura-industria | <input type="checkbox"/> D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura... |
| <input type="checkbox"/> E. Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa... | <input type="checkbox"/> F. Eraikuntza |
| <input type="checkbox"/> G. Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailuen konponketa | <input type="checkbox"/> H. Garraioa eta biltegiatzea |
| <input type="checkbox"/> I. Ostalaritza | <input type="checkbox"/> J. Informazioa eta komunikazioak |
| <input type="checkbox"/> K. Finantza-jarduerak eta aseguruetakoa | <input type="checkbox"/> L. Jarduerak higiezinekin |
| <input type="checkbox"/> M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak | <input type="checkbox"/> N. Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak |
| <input type="checkbox"/> P. Hezkuntza | <input type="checkbox"/> Q. Osasun- eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak |
| <input type="checkbox"/> R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak | <input type="checkbox"/> S. Beste zerbitzu batzuk |
| <input type="checkbox"/> T. Etxeetako jarduerak etxeko lanak egiteko langileei lana emateko moduan | <input type="checkbox"/> U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta antolamenduen jarduerak |

1.6. Harremanetarako datuak *Galdetegiari erantzun dion pertsonarenak, aurrerago harekin harremanetan jartzeko*

Izena(VIde6A): _____
Telefonia (VIde6B): _____
E-maila (VIde6C): _____

Sustapeneko jardueraren datuak

2. BLOKEA: 2021EAN HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEEI LAGUNTZEKO ETA HAIKIN BATERA LAN EGITEKO BULTZATUTAKO EKINTZAK

EHSSri laguntzeko eta harekin batera lan egiteko bultzatutako ekintzak adina aldiz bete behar da bloke hau

2.1. 2021ean bultzatutako edo 2021erako aurreikusitako laguntza- edo elkarlan-ekintzaren izena*: (Vact1)

2.2. 2021ean bultzatutako edo 2021erako aurreikusitako laguntza- edo elkarlan-ekintzaren deskribapena: (Vact2) *Azaldu labor zein den bultzatutako ekintza, zer helburu duen, nola gauzatu den, etab.*

¹ Derrigorrezkoa da izartxoak duten galderei erantzutea

2.3. Ekintza honek baliabide ekonomikoak mobilizatu ditu? (Vact3A) *Hirugarren Sektorre Sozialerako erakunde hartzaileen egitasmoak garatzeko baliabide ekonomikoak mobilizatzen dituzten ekintzez ari gara (jarduera, proiektu, programa... bat finantzatzeko edo gastuak ordaintzeko).*

Bai Ez ED/EDE

2.3.b. Zer motatakoak? *Erantzun bat baino gehiago aukera ditzakezu* (Vact3B)

Babesletza eta mezenasgoa (Vact3C) Donazioa (Vact3D)
 Kausadun marketina (Vact3E) Laguntza edo dirulaguntza (Vact3G)
 Saria dirutan (Vact3F) Beka (Vact3H)
 Beste bat (zehaztu) _____ (vact3Itexto)

2.4. Ekintza honek giza baliabideak mobilizatu ditu? (Vact4A) *Ekintzaren hartzailea den EHSSko erakundearekin batera modu aktiboan lan egin duten enpresako giza baliabideei deitzen diegu giza kapitala.*

Bai Ez ED/EDE

2.4.b. Zer motatakoak? *Erantzun bat baino gehiago aukera ditzakezu* (Vact4B)

Boluntarioratza korporatiboa (Vact4C) Pro bono programa (Vact4D)
 Beste bat (zehaztu) _____ (vact4Etexto)

2.5. Enpresakoak edo ekintzaren hartzailea den Hirugarren Sektorre Sozialerako erakundeak ez diren pertsonen edo pertsona taldeen (familiak, emakumeak, haurrak, etab., edo beste talde batzuk) parte-hartzea ekarri du? (Vact5A)

Bai Ez ED/EDE

2.5.b. Deskribatu labur nolakoa izan den kapital sozialaren mobilizazio hori.

2.6. HSSko erakundeak zerbitzuak eskaini zaizkie, edo baliabide teknikoak eta/edo materialak mobilizatu dira haien mesedetan? (Vact6A)

Bai Ez ED/EDE

2.6.b. Zer motatakoak? *Erantzun bat baino gehiago aukera ditzakezu* (Vact6B)

Aldi baterako espazioak uztea (Vact6C) Azpiegiturak esleitzea edo egokitzea (Vact6F)
 Materiala uztea edo ematea (Vact6D) EHSSrako zerbitzu edo produktu espezifikoak sortzea (Vact6G)
 EHSSri egokitutako zerbitzuak edo produktuak (deskontuak, abantaila bereziak, etab.) (Vact6E) Beste bat (zehaztu) _____ (vact6Htexto)

2.7. Aurreko urteetan ere bultzatu izan da ekintza hau? (Vact7)

Ez, lehenengo aldiz bultzatu da Bai, aurreko urteetan ere bultzatu izan da, eta 2021ean jarraipena izan du
 ED/EDE

2.8. Zer lurraldetan izan du eragin espezifikoak bultzatutako ekintzak? *Erantzun bat baino gehiago aukera ditzakezu*

Araba (Vact8A) Bizkaia (Vact8B)
 Gipuzkoa (Vact8C) Euskadi (hiru lurralde historikoetan izan badu eragina, aldi berean) (Vact8D)
 Estatua (Vact8E) Estatutik kanpo (Vact8F)

2.9. Hirugarren Sektore Sozialeko zer erakunderi zuzenduta zegoen, zehazki, bultzatutako ekintza? *Neurriaren onuradunak diren Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen izenak adierazi. Izanez gero, zerk biltzen dituen: jarduera arloa (Osasuna, gizarte-zerbitzuak...), arreta zuzentzen dien taldea (desgaitasuna duten pertsonak, haurrak...) eta abar.* (Vact9)

2. 10. Hirugarren Sektore Sozialekoak ez diren beste erakunde edo instituzio batzuekin (beste enpresa batzuk, administrazio publikoak, eragile sozialak, etab.) elkarlanean bultzatu da ekintza hau.)? (Vact10A)

Bai Ez ED/EDE

2.10.b. Zer motatakoak? (Vact11b)

Behar adina erantzun hauta daitezke

Erakunde publikoak (Vact11D) Beste enpresa batzuk (Vact11E)
 Beste erakunde pribatu batzuk (enpresak ez direnak) (Vact11F) Beste batzuk (Vact11G)

2.10. H Zehaztu dezakezu zein? (Vact10Htexto)

2.11. Zergatik bultzatu duzue ekintza hau? (Vact11)

Plan edo programa propio baten parte da (gizarte-erantzukizuneko edo antzekoa) Erakunde hartzaileak gerturatu direlako sortu da (Vact11b)
 Enpresako langileen ekimen pertsonaletik sortu da Beste arrazoi batzuk (zehaztu) _____ (Vact12Btexto)

2.12. Aipatu nahi diguzu beste zerbait HSSri laguntzeko edo harekin batera lan egiteko ekintza honen gainean? (Vact12) *Aurrez jaso ez dugun beste edozein xehetasun garrantzitsu azal diezagukezu, labor, edo informazio gehiago jasotzen duen lotura edo hiperesteka bat gehi dezakezu.*

2.13. EHSSri laguntzeko edo harekin batera lan egiteko beste ekintzarik bultzatu duzue 2021ean, edo aurreikusten duzue 2021ean bultzatzea? (Vact13)

Bai Ez

Egoeraren eta aurreikuspenen gaineko datuak

3. BLOKEA: COVIDAREN ERAGINA EHSS-RI EMANDAKO LAGUNTZAN EDO HAREKIKO ELKARLANEAN

Behin bakarrik bete behar da

3.1. Nola eragin die Covid-19aren ondoriozko osasun-krisiak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari laguntzeko edo harekin batera lan egiteko zuen 2021eko ekintzei? (Vprev1)

Ez du eraginik izan Gure laguntza edo elkarlana murriztu dugu
 Bertan behera utzi ditugu aldi baterako Beste bat (zehaztu) _____ (Vprev1texto)

3.2. 2021ean zehar laguntzeko edo elkarlanerako ekintzak egokitu behar izan dituzue erakundeen egoera aldatu delako, edo arazo sozialak sortu edo larriagotu direlako? (Vprev2)

Ez, beti bezala mantendu da Bai, egokitu egin behar izan dugu

3.3. Behin osasun-krisia amaitzen denean, zer aurreikuspen duzue Hirugarren Sektore Sozialari zuzendutako laguntzaren edo elkarlanaren inguruan? (Vprev3)

Aurreko urteetako jarduera berreskuratzea Aurreko urteetako jarduera murriztea
 Horrelako ekintzak bultzatzen ditugun lehen aldia da ED/EDE

3.4. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari emandako laguntzan edo harekiko elkarlanean COVIDaren eraginaren inguruan gehitu nahi duzun iruzkin edo oharren bat. (Vprev4)